



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## DEKRETUA

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 25. artikuluan, "Egutegi fiskala" izenburupean, aldian behin ordaindu beharreko diru-sarreraren epeak zehazten dira. Udalbatzaren 2020ko abenduaren 23ko erabakia (2020ko abenduaren 28ko ALHAO, 147. zk.).

Etxeetakoez kanpoko ur zikinak isurtzeari eta industria-isurketei dagokien tasa ordaintzeko epea martxoaren 1etik maiatzaren 3ra artekoa da.

Tasa ordainarazteko, beharrezkoa da errolda osatzea, subjektu pasiboak, zerga-oinarriak eta ordaindu beharreko kuotak zehaztuta, eta errolda jendaurrean jartzea 15 egunez, eraginpean dauden zergadunek aztertu eta, hala dagokionean, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Ingurumen Sailak jakinarazi du oraindik ez dituela jaso zerga-oinarria osatzeko behar diren datu guztiak; horrenbestez, tasa ordaintzeko epea aldatu beharra dago.

Etxeetakoez kanpoko ur zikinak isurtzeari eta industria-isurketei dagokien tasa 6.8 ordenantza fiskalean dago araututa.

Alkate lehendakariak, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrak (25. art.) eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak — Tokiko gobernua modernizatzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— aitortzen dizkion eskumenak baliatuz, hauxe:

### **EBATZI DUT:**

Industria-isurketei dagokien tasa ordaintzeko 2021erako egutegi fiskala aldatzea: apirilaren 21etik ekainaren 21era artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 21ean.

**ALKATE LEHENDAKARIA**